

{ analisis } **Dabid LAZKANOITURBURU**

Errefuxiatuak non, zer, nora?

U da gehienetan norberaren herrialdeko iturri komunikatiboek oporrak hartzen dituzte. Munduan zeharreko gatazkek, ordea, ez dute etenik eta itzaltze informatibo hori betetzen saiatzeko beti ondo dator nazioarteko krisialdiren bat. Kazetaritzaz bizi garenok buuruan dugu oraindik 2008ko abuztuan Errusiaren eta Georgiaren arteko gerrari, bost egun besterik iraun ez bazituen ere, erredakziotan zer-nolako etekina atera genion.

Aurten, ordea, ez da horren beharrik izan, errefuxiatu uholdeen drama izugarria izan baita

Azken asteotan prentsan askoz ere gutxiago agertu arren, etorkinek uholdeka jarraitzen dute Mediterraneo itsasoa zeharkatzen. Eta bizi duten dramaz gain, gure topikoak eta beldurrak pairatu behar izaten dituzte.

uda osoan zehar, eta ez bakarrik zenbakietan, baita iheslari babesgabeek bizitako egoera jasanezinetan ere. Izugarria izan da eta izaten jarraitzen du. Izan ere, errefuxiatu eta etorkinen iritsierak ez du etenik izan eta ez du etenik izango Mediterraneo itsasoa eta Balkanak zeharkatzea zailduko duen negu gorria iritsi bitartean.

700.000 etorkin

Europako Batasunaren mugak zaintzen dituen Frontex agentziaren arabera, 710.000 dira urteko lehen bederatzi hilabeteetan mugok zeharkatu dituzten etorkinak. Iaz, guztira, 282.000 izan ziren. «Grezia-ko uharteek, batez ere Lesbosen, pairatzen dute etorkin uholdearen presiorik handiena, eta urtariletik hona 350.000 iritsiera zenbatu dira», gaineratu du Frontex agentziak.

Etorkinetako batzuk Europar Batasunera hegazkinez edota beste hainbat garraio-bide erabilita iritsi direla kontuan hartuta, zenbakiok bat datoz UNHCR Iheslari-entzako Nazio Batuen Goi Mandatariak emandakoekin. Izan ere, 600.000 etorkinek zeharkatu dute Mediterraneo UNHCR berak emandako datuen arabera, eta horietatik 450.000 Grezian sartu dira Europar Batasunera. Hil eta desagertutzat jotakoak 3.000 baino gehiago dira, ia denak itsasoan hildakoak.

Dramak, beraz, bere horretan jarraitzen du. Nolatan, horrenbestez, azken asteotan komunikabide gehienetan auzia jasotzen ari den oihartzun urria?



Etorkin talde bat errefuxiatu eskaera egiteko ilara egiten, Berlin Alemaniako hiriburuan. Good ANDERSEN | AFP

Dударик gabe, gaur egungo komunikazioaren munduan, non egunerokotasunaz gaindi berehalakotasuna den nagusi, gertaerak oso azkar “erretzen” dira. Informazioak “berria” behar du izan eta zaharkitzea ordu gutxi batzuetako kontua da. Auzirik sakonenak ere azaletik aztertzeke joerak, gero eta nabarmenagoa dena pantailaren eta Interneten aro honetan, izango du ere eraginak horretan.

Arazoaren muina

Kontuak kontu, errefuxiatuen auziari nola heldu jakin gabe jarraitzen du klase politikoak, eta badirudi harridura horrek komunikabideon isiltasunean zeresanik izan baduela.

Komunikabide gehienek bat egin dute errefuxiatuen erretratu-robot bat aurkezterako orduan: Estatu Islamikoaren (ISIS) sarrasketatik ihes datozen siriarrak omen dira ia errefuxiatu guztiak. Gainerakoak ere Mendebaldeak Ekialde Hurbilera eramandako gerrak kaleratu dituzte euren etxeetatik. Kategorizazio guztiek zor diote zer edo zer egia-ri, baina, era berean, kategori- zazio orok azaleratzen duena baino gehiago ezkututzen du. ISISen krudelkeria lotsagabe-ak sortzen duen ikara izugar-ria da, dudarik gabe. Baina ez da bakarra. Ezta gutxiago ere.

Giza Eskubideen Behatoki Siriarrak salatu duenez –oposizioko taldea dela ohartarazi behar da–, 2014ko abuztutik 2015eko abuztura bitartean herrialde arabiarreko gerran hildakoen %80 Siriako Gobernuaren indarrek (Armada, bertako eta kanpoko miliziak) eragindakoak dira. Egoitza



Errefuxiatu bat lotan, Mitilene Greziako Lesbos uharteko grafiti batean. Aris MESSINIS | AFP

Londresen duen erakundea- ren arabera, hildakoen %20 bakarrik eragotzi behar zaiz- kie ISISi, talde matxinoei, mi- lizia kurduei eta Ameriketako Estatu Batuen bonbardaketei.

Ezin da ahaztu Giza Eskubi- deen Behatoki Siriarraren aur- ka kritika latzak bota dituela Siriako Gobernuak. Hala ere, eta Londresen egoitza izanik ere, duen berriemaile sareak Siriako herrialde osoa hartzen du, eta, ISISen sarraskiei bu- ruz eman dituen berriak ziur- tzat hartu izan dira, baita Da- maskon bertan ere.

Aipatu Behatokiaren par- tzialtasuna kontuan hartu eta bere ikerketak alboratuta ere, badago beste ikerketarik. Vio- lation Documentation Center erakunde siriarrak sinesgarri- tasun gehiago du hainbat ko- munikabiderentzat, eta Giza Eskubideen Nazioarteko Fede- razioaren babesa du besteak beste. Erakunde horren esane- tan, ISISek hiltzen duen zibil bakoitzeko zazpi zibil erori di- ra orain arte Siriako Armada- ren bonbardaketetan.

Baieztapen horrek ISIS talde jihadistaren bortizkeria gu-

Merkelen «hamar mandamenduak»

Angela Merkel Alemaniako kantzeleriak Europako Alderdi Popularreko diputatuen bilera batean egin zituen ondoren- go baieztapenak, AEBetako Politico komunikabide digita- lak kaleratutakoaren arabera:

1.- «Beldurra ez da ekiteko gida ona».

2.- «Ezin da onartu merkantziak eta pertsonak libre mugitzen uztea, eta, aldi berean, siriarrak ezin ditugula hartu eta ez gau- dela oraindik prest esatea... Barkatu baina auzia ezkututzen ari zarete».

3.- «Batek esaten duenean 'hau ez da nire Europa; ez dut musul- manik onartuko', honakoa eran- tzun behar diot: 'Honetan ez dago negoziatzetik'».

4.- «Nola izango gara gu mun- duan kristauak defendatzeko gai gure herrialdeotan musulmanak edota meskitak ez ditugula onartuko esaten badugu? Horrek ez du funtzionatuko».

5.- «Apurka-apurka egin daiteke, edota Ekialdeko europarrek beste arazo batzuk dituztela esan daiteke. Baina ezezkoa, printzipio bezala, arrisku bat da Europarentzat».

6.- «Hungariari lagundu izan diogu beti pentsatu dugulako Europaren dignitatea bermatu egin behar zela».

7.- «Sartzeko biderik xelee- breen aurkituko dituzte beti».

8.- «Guk, Ekialdeko europarrok, eta ni neu bertakoa naiz, ikusi izan genuen isolamenduak ez duela ezertan laguntzen».

9.- «Soilik harresiak eraikiz ez ditugu errefuxiatuak geldituko. Ni neu harresi baten atzean bizi izana naiz urte luzez».

10.- «Gerra Hotzaren amaiera ikusteko beste bizitzeko zortea izan duteneko batzuek zera uste dute orain, globalizazioaren hainbat ondoriotatik at gera dai- tezkeela. Zinez arraroa dirudi».


txiestea suposatzen du? Ezta gutxiago ere. Milaka eta milaka dira kalifatuaren izutik ihes egin duten siriar eta irakiarrak, hobe esanda, kurduak. Baina ondo legoke gogoratzea ISISen 2014ko udaberriko erasoaldiaren aurretik 3 milioi errefuxiatu zeudela Siria ondoko herrialdeetan (egun 4 milioi dira), eta etxetik alde egin behar izan zuten siriarrek milioika zenbatzen zirela ordurako.

Esaten ez dutenari

Errefuxiatuek esaten dutenari, eta batez ere esaten ez dutenari, adi egotea besterik ez dago. Asko dira Siriako Armadak lehergailuz jositako kupelekin egindako bonbardaketetatik ihes egiten ari direnak. Homs bezalako hiriak nola geratu diren erakusten duten argazkiak ikustea besterik ez dago.

Milaka eta milaka dira ere talde matxinatuen atentatu eta mortero erasoen beldur ihes egiten duten siriarrek. «Talde moderatuak» dira horiek AEBen eta Mendebaldearen esanetan. Aldiz, horietako hainbatek –Al-Qaedako Al-Nosra erakundea tartean– sarraski izugarriak egin dituzte.

Horren harira, oso esanguratsua da Aylan al-Kurdi haurra- ren dramaren nondik-norakoa aztertzea. Are gehiago bere irudiak –Turkiako hondartza batean itota ageri zen, panpina bat bailitzan–, mundu osoan sekulako oihartzuna izan zuela kontuan hartuta, iritzi publikoa astinduz. Abizenak adierazi bezala kurdua den Al-Kurdi familiaren ihesa ez zen ISISen mehatxupeko Kobane hirian hasi. Lehenik, Gobernuaren eta matxinatuen arteko Damaskoko liskarretatik ihes egin zuten



Alepora, jaioterrira. Zorigaiztoko aukeraketa izan zen, Siriako bigarren hiria odolustuta eta guztiz suntsituta baitago 2012an hasitako enfrontamendu bortitzen ondorioz. Kobane, beraz, familiaren hirugarren geltokia izan zen. Familia hiru aldiz saiatu zen Europara iristen, bere ametsa, baina, ama eta bi haur tartean, Mediterraneoan hondoratu zen. Aylanen gorputz txikia eta bere senide- ena Kobaneko kanposantuan ehortzi zituen aitak.

Tamalez, Al-Kurdi sendiaren ihesaldiaren xehetasunak ez dira ezer beraiek eta beraiek bezala beste hainbat eta hain-

batek bizitako dramekin alde- ratuta. Balio dezala, besterako ez bada, topikoetatik urruntze- ko. Topikoek irekitzen baitiz- kiete ateak ultraeskuinari.

Eta topikoekin jarraituz, errefuxiatu uholdea baliatuz, ISISen milaka jarraitzaile Euro- para iritsi diren zurrumurrua zabaldu da azken asteotan. Gu- re Kontinente Zaharrean gero eta indar gehiago duten Le Pen guztiek –Javier Maroto Gasteiz- ko alkate ohia tartean–, egia- tzat jo dute berria, herritarren beldurra baliatzeko prest.

Ez da errefuxiatuei buruz hainbat ahotan dabilen zurrum- urru bakarra. Duela bi aste

Errefuxiatu talde bat, Lesbos uhartean lur hartu ondoren bidean gora. Dimitar DILKOFF | AFP

Laith Abu Saleh siriarrari Kios Greziako uhartean ateratako argazkia baliatuta, Al-Nosrako edota ISISeko komandante be- zala aurkeztu zuten hainbat komunikabidek. Bere irudia ia trending topic bihurtu zen Twitterren, baina egun batzue- tara jakin zen Abu Saleh Siria- ko Armada Librea talde matxi- noaren komandantea zela eta ISISen eta Al-Nosraren aurka borrokatu zela –erregimenaren aurka ere borroka egin zuen–, gerraz nazkatu arte.

Duela bi egun, ordea, Euro- para iristen ari direnen artean Bashar al-Assaden aldeko sha- biha miliziano beldurgarriak dauden susmoa zabaldu zuen agentzia batek. Antza, oposi- zioko beste errefuxiatu ba- tzuek ezagutu egin dituzte Me- diterraneora gerturatzeko bidaian. Salaketa hori indartu asmoz, errefuxiatu asko Siria barrutik eta gobernuaren kon- trolpeko hirietatik atera direla ohartarazten dute batzuek.

Zurrumurru guztion atzean zer edo zer egon daiteke, jaki- na, baina norberaren aurreiri- tziak bizkortzeko «sasiargudio- ak» dirudite gehiago. Siriako errefuxiatuak errefuxiatuak dira. Errefuxiatu guztiak ez di- ra siriarrek (agian erdia ere ez). Ihes egiteko arrazoiak asko di- ra eta batzuk ez dira politikoki zuzenak –esate baterako, afga- niar asko talibanetik ihesi doaz okupatzaileekin kolaboratu zu- telako–. Eta etorkizunari begi- ra, benetako arazoa ez da Siria- tik etorriko, Afrikatik baizik. Izan ere, egun 1.200 milioi biz- tanle dituen Kontinente Bel- tzak populazioa laukoiztuko du 2100. urterako. Afrikak di- tuen arazo gordinak konponbi- dean jartzea litzateke, beraz, zentzuzkoena.